

Kontratuen erregistroa 2019an

KONTRATATUTAKO PERTSONAK

2019an 310.570 pertsona kontratatu dira, joan den urtean baino 2.977 gutxiago. 2019an, aurreko urteetan ez bezala, urte arteko kontratatutako pertsona desberdinen kopurua murriztu egin da; hau ez da gertatu krisi urte gogorrenetatik.

• SEXUA

2019an 163.542 gizon eta 147.028 emakume kontratatu dira. Kontratutako gizonen kopurua emakumeena baino handiagoa izan da berriz. Krisi-garaian kolpatuak izan ziren jarduera maskulinizatu batzuk suspertu egin dira, eta horrek azal lezake kontratazioan gizonen alde izan den abantaila hori. Hala ere, iaz ez bezala, gizonen kontratazioa nabarmen jaitsi da emakumeen aldean; 2.604 kontratu gutxiago gizonetan, 303 gutxiago emakumeen kasuan.

• ADINA

Kontratutako pertsonen batez besteko adina 36,37 da, eta zertxobait altuagoa da emakumeen adina (36,45) gizonena baino (36,29). Kontratutako langile gazteenak, batez beste, lanbide tekniko –goi-mailakoak nahiz laguntzakoak– eta zerbitzuen arlokoak dira; horien batez besteko adina 35 urtetik beherakoa da. Zaharrenak, berriz, zuzendaritza-lanetan kontratatutakoak dira; batez beste 43 urtetik gorakoak dira. Lanaldi partzialean kontratatutako pertsonak gainerakoak baino gazteagoak dira: horien batez besteko adina 35,17 urte da; 33,35 gizonena eta 36,11 urte emakumeen kasuan. Kontratu mugagabeaz kontratatutako multzoa etaaldi baterako kontratuen adinean aldea dago (38,04 urte eta 35,88 urte, hurrenez hurren).

• JATORRIA

2019an kontratatutako pertsonen % 16,5ek atzerriko nazionalitatea du; joan den urteko ehunekoa baina altuagoa (%15,1a izan zen 2018an). Kontratutako pertsona atzerritarren %37,9ak Latinoamerikako herrialde bateko nazionalitatea du, %15,7ak Afrikako iparraldeko herrialde batekoa, %13,8ak Europako Erkidegokoa ez den Europako herrialde batekoa, %11,8ak Europako Erkidegoko herrialde batekoa, %10,8ak Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde batekoa eta %9,1ak Asiakoa. Pertsona atzerritarrek eta bertakoek ia adin berbera dute dira (36,38 eta 36,37 urte, hurrenez hurren). Kontratazio-kopuru esanguratsua duten atzerritarren artean, Latinoamerikatik heldutako pertsonak dira gazteenak (35,59 urte), eta Saharaz azpiko Afrikatik heldutakoak zaharrenak (37,52 urte). Azken urtean, kontratatutako atzerritarren artean gehien hazi direnak Latinoamerikatik heldutakoak dira; %16,3ko hazkundera, 2.718 pertsona guztira. Eta, murriztu diren bakarrak, Europa Erkidegokoa ez den herrialde batetik etorritakoak dira (96 pertsona gutxiago, %1,3 ko murrizketa).

• PRESTAKUNTZA - MAILA

Kontratutako pertsonen % 44,3k oinarrizko prestakuntza maila du –gehienez ere derrigorrezko hezkuntza amaitu du–, %21,3k batxilergoko ikasketak egin ditu, %17,8ak unibertsitate-ikasketak eta gainerako %15,8k lanbide-heziketakoak. Hala, urteko erreferentzian, hazi den prestakuntza-profil bakarra batxilergoko ikasketak dituztenena izan da (+1.344 pertsona). Gehien murriztu dena, LHko ikasketak dituzten profilekoak izan dira, (-2.616 pertsona) eta

Kontratuen erregistroa 2019an

ondoren oinarritzko ikasketak dituztenena (-1.700). Prestakuntza-maila apaleko pertsonen lanegonkortasun txikiagoa izan ohi dute, eta, ondorioz, aktibitate handiagoa eragiten dute kontratuen erregistroan.

K O N T R A T U E N K O P U R U A K

2019an 1.008.175 kontratazio izan dira EAEn, eta horietatik 83.931 (% 8,3) mugagabeak izan dira. Kontratu mugagabea izan duten gizonen ehunekoa (%8,7) emakumeena baino handiagoa da (%8). Kontratazioa %0,7 hazi da aurreko urtearekiko.

• J A R D U E R A E K O N O M I K O A

2019an gehien hazi diren jarduera ekonomikoak honako hauek izan dira: ostalaritzakoak (+7.784), garraiokoak (+7.784) eta hezkuntzakoak (+3.477). Aldiz, gehien murriztu diren jarduerak, administrariak (-9.609), industriakoak (-4.640) eta merkataritzakoak (-2.968) izan dira.

• L A N B I D E A

Azken urtean kontratu gehien eragin dituzten lanbide-profilak izan dira, lehenik, kalifikazio-maila bat duten zerbitzuen sektorekoak (% 31,3) eta, bigarrenik, kalifikatu gabeko lanpostuak (% 30,2). Bestalde, kontratazioa gehien hazi den lanbide-profilak hauek izan dira: zientziar-erloto teknikariak eta profesionalak (+ 6.406), zerbitzuetako kalifikatutako langileak (+3.592), eta administrariak (+2.131). Sinatutako kontratuen kopuruak behera egin du ez kualifikatuetan (-4.454), operadore lanpostuetan (-2.391) eta industriako kualifikatuetan (-737).

• K O N T R A T A Z I O - M O T A

Kontratuen % 8,3 mugagabea izan da; gizonen %8,7k eta emakumeen %8k izan dute kontratu-mota hori. Gizonen ehunekoa handiagoa da, 2018an gertatutakoaren antzera, baina aurtengo portzentajeak baxuagoak dira. Esan ohi denaren kontra, kontratu mugagabeen kopurua ez da txikia, urtean zehar horrelako 83.391 kontratu sinatu baitira (azken urtean 4.694 gutxiago izan dira). Arazoa, itxura batean, kontratu mugagabe horien egonkortasun-eza da; izan ere, horiek benetan egonkorak balira, urtea gutxitan aldi baterako kontratua duten 200.000 pertsona ingururen kontratuzko harremanak bermatzea lortuko litzateke, eta hori ez da gertatzen.

2019an sinatutako 5 kontratutik 2 (%40,2) lanaldi partzialeko kontratuak dira; erdiak baino gehiago emakumeetan (%53,4) eta 4tik 1 baino gehiago gizonetan (%27). Kontratazio-mota horren arazo handiena da kontratu gehienak ez direla borondatezkoak, eta hori kontratuzko harremanaren kalitate eskasaren adierazgarri da.


Lanaldi partzialeko kontratuen ehuneko handienak ageri dituzten jarduera ekonomikoak honako hauek dira: ostalaritza (%67), etxeetako jarduerak (%63,9), hezkuntza (%60,6) eta beste zerbitzu batzuk (%57,3). Lanbide-profilei dagokionez, lanaldi partzialeko kontratazioen ehuneko handiena duena zerbitzuetako langileena da (%60), eta txikiena, berriz, manufaktura-industrietako langile kalifikatuena (%8,6).

Kontratuen erregistroa 2019an


• J A T O R R I A

2019ko kontratuen %13,9 pertsona atzerritarrek sinatu dute; ehuneko hori joan den urtekoa baino handiagoa da (%12,6). Atzerritik heldutako pertsonak sinatutako kontratuetan, pertsona horien jatorri nagusia Latinoamerika da (%37,7), eta, ondoren, Afrikako iparraldea (%17,3) eta Saharaz hegoaldeko Afrikako herrialde bat (%16).

Kontratututako pertsonak jatorriaren arabera %



Kontratu guztiak jatorriaren arabera%



Grafiko hauek erakusten dute pertsona atzerritarren ehunekoa pertsona horien kontratuen guztizkoa baino handiagoa dela, eta horrek aditzera ematen du atzerritik heldutako pertsonen errotazioa bertan jaiotakoena baino handiagoa dela. Horren oinarrian egon litekeen faktore bat da pertsona atzerritarrek kalifikazio apalagoko eta lan-baldintza kaskarragoko lanpostuak izan ohi dituztela; enpresari batzuek gehiago fidelizatzen dituzten langile atzerritarrak, lan-baldintza okerrenak hobeto onartzen dituztelako. Beste faktore bat izan liteke pertsona atzerritarrek, kalifikazio apalagoa izanik, lan kaskarragoekin etsitzen dutela eta sarritan ez dituztela lan-aukera hobekak bilatzen.

• P R E S T A K U N T Z A - M A I L A

Prestakuntza-mailaren arabera banandutako datuen analisiak erakusten du kontratu gehien-gehienak oinarrizko prestakuntza-maila duten pertsonak sinatu dituztela (%44,7). Batxilergoko ikasketak egin dituzten pertsonak kontratuen %22,1 sinatu dute -5 kontratutik 1 baino gehiago-, lanbide-heziketako ikasketak egin dituztenek %16,4, eta unibertsitate-ikasketak egin dituztenek %15.

• L U R R A L D E H I S T O R I K O A K

Lurralde historikoen artean, sinatutako kontratuen lanpostuen %19,2a Araban dago, %51,6a Bizkaian eta gainerako % 29,2a Gipuzkoan. Arabak bere biztanle-kopuruari erreparatuta espero litekeena baino kontratazio-ehuneko handiagoa du, eta Gipuzkoak txikiagoa; Bizkaian, kontratazio-ehunekoa espero litekeenaren oso antzekoa da.

Aurten, kontratazioek gora egin dute hiru lurralde historikoetan: Araban %0,73 (1.408 kontratu gehiago), Gipuzkoan %0,65 (1.896 kontratu gehiago) eta Bizkaian %0,71 (3.690 kontratu gehiago).

Kontratuen erregistroa 2019an

• BESTEREN ZERBITZUAN JARTZEKO KONTRATUAK (ABLE)

2019an sinatutako 5 kontratutik bat (% 20,6) aldi baterako laneko enpresen bitartez egin dira. ABLEen bitartez egindako kontratazioa askoz ohikoagoa da gizonetan emakumeetan baino. Gizonetan, kontratuen %28,3a horrelako enpresa batek egindakoa izan da, eta emakumeetan, berriz, kontratazioen %13,2a bakarrik egin du ABLE batek.


Lurralde historikoen artean alde handiak daude: kontratazio-mota hori gehien erabili den lurraldea Araba izan da (%26,4), ondoren Bizkaia (%22) eta Gipuzkoako ehunekoak nabarmen apalagoak dira (%14,7).

ABLEen bitartez kontratu gehien egin diren lanbide-taldeak honako hauek dira: kalifikaziorik gabeko langileak (%37,1), kalifikazio-maila bat duten zerbitzuen sektorekoak (%35,4) eta operadoreak (%29,4).

Industriako langile erdien kontratazioa (%53,1) ABLE baten bitartez egiten dira. ABLEen bitartez kontratu-kopuru dezente egiten diren beste jarduera bat garraioak dira (% 51,4).

Aurreko urtearekin alderatuta, aldi baterako laneko enpresen bitartez egindako kontratuak %5,5 hazi dira.

ABLE bidezko kontratuen %



Kontratuen erregistroa 2019an

		2019	2018	Aurreko urtearekiko	
				Saldoa	Bil. %
Mota	Mugagabea	83.931	88.625	-4.694	-5,30%
	Aldi baterakoa	924.244	912.556	11.688	1,28%
	Guztira	1.008.175	1.001.181	6.994	0,70%
	Mugagabeen %	8,3%	8,9%		
Sexua	Gizona	502.030	500.919	1.111	0,22%
	Emakumea	506.145	500.262	5.883	1,18%
	Guztira	1.008.175	1.001.181	6.994	0,70%
	Emakumeen %	50,2%	50,0%		
Mugagabea	Gizona	43.481	46.048	-2.567	-5,57%
	Emakumea	40.450	42.577	-2.127	-5,00%
	Guztira	83.931	88.625	-4.694	-5,30%
Aldi baterakoa	Gizona	458.549	454.871	3.678	0,81%
	Emakumea	465.695	457.685	8.010	1,75%
	Guztira	924.244	912.556	11.688	1,28%
Guztira	Gizona	502.030	500.919	1.111	0,22%
	Emakumea	506.145	500.262	5.883	1,18%
	Guztira	1.008.175	1.001.181	6.994	0,70%
Mugagabeen tasa	Gizona	8,7%	9,2%		
	Emakumea	8,0%	8,5%		
	Guztira	8,3%	8,9%		
Lanaldi partziala	Mugagabea	27.995	30.416	-2.421	-7,96%
	Aldi baterakoa	377.614	369.164	8.450	2,29%
	Beste batzuk	602.566	601.601	965	0,16%
	Guztira	1.008.175	1.001.181	6.994	0,70%
	LP tasa	40,2%	39,9%		
Lanaldi partziala	Gizona	135.306	132.807	2.499	1,88%
	Emakumea	270.303	266.773	3.530	1,32%
	Guztira	405.609	399.580	6.029	1,51%
	Gizonen tasa	323,6%	26,5%	3	1120,42%
	Emakumeen tasa	639,7%	53,3%	6	1099,61%
	Tasa guztira	40,2%	39,9%	0	0,80%
Prestakuntzakoak	Prestakuntzakoak	7.557	9.309	-1.752	-18,82%
	Beste batzuk	1.000.618	991.872	8.746	0,88%
	Guztira	1.008.175	1.001.181	6.994	0,70%
	Prestakuntzakoak (%)	0,7%	0,9%		
L. historikoa	Araba	193.720	192.312	1.408	0,73%
	Bizkaia	520.674	516.984	3.690	0,71%
	Gipuzkoa	293.781	291.885	1.896	0,65%
	EAE	1.008.175	1.001.181	6.994	0,70%
Gizonak	Lehen sektorea	15.895	16.718	-823	-4,92%
	Erauzketa-industriak	90	108	-18	-16,67%
	Manufaktura-industriak	110.694	115.863	-5.169	-4,46%
	Energia	98	79	19	24,05%
	Ura	5.583	5.499	84	1,53%
	Eraikuntza	31.938	33.548	-1.610	-4,80%
	Merkataritza	43.961	44.482	-521	-1,17%
	Garraioa	68.193	61.651	6.542	10,61%
	Ostalaritza	64.082	60.620	3.462	5,71%
	Informazioa eta komunikazioa	17.877	17.255	622	3,60%
	Finantzak eta aseguruak	1.682	1.511	171	11,32%
	Higiezin sektorea	534	518	16	3,09%
	Zientifikoak eta teknikoak	14.902	14.097	805	5,71%
	Administraziokoak	45.146	49.004	-3.858	-7,87%
	Administrazio publikoa	6.025	5.468	557	10,19%
	Hezkuntza	14.294	13.305	989	7,43%
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	24.137	24.397	-260	-1,07%
	Arte- eta jolas-jarduerak	27.354	27.300	54	0,20%

Kontratuen erregistroa 2019an

		2019	2018	Aurreko urtearekiko	
				Saldoa	Bil. %
	Beste zerbitzu batzuk	8.223	8.083	140	1,73%
	Etxeetako jarduerak	1.204	1.288	-84	-6,52%
	Lurraldezk kanpoko erakundeak	118	125	-7	-5,60%
	Guztira	502.030	500.919	1.111	0,22%
Emakumeak	Lehen sektorea	1.723	1.738	-15	-0,86%
	Erauzketa-industriak	24	23	1	4,35%
	Manufaktura-industriak	33.478	32.949	529	1,61%
	Energia	48	70	-22	-31,43%
	Ura	676	562	114	20,28%
	Eraikuntza	2.111	2.012	99	4,92%
	Merkataritza	63.532	65.979	-2.447	-3,71%
	Garraioa	14.260	13.018	1.242	9,54%
	Ostalaritza	107.301	101.118	6.183	6,11%
	Informazioa eta komunikazioa	12.564	11.920	644	5,40%
	Finantzak eta aseguruak	2.656	2.986	-330	-11,05%
	Higiezin sektorea	855	834	21	2,52%
	Zientifikoak eta teknikoak	18.906	18.942	-36	-0,19%
	Administraziokoak	63.246	68.997	-5.751	-8,34%
	Administrazio publikoa	8.370	7.805	565	7,24%
	Hezkuntza	36.736	34.248	2.488	7,26%
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	93.066	90.396	2.670	2,95%
	Arte- eta jolas-jarduerak	17.715	17.566	149	0,85%
	Beste zerbitzu batzuk	12.743	13.008	-265	-2,04%
	Etxeetako jarduerak	16.014	15.951	63	0,39%
	Lurraldezk kanpoko erakundeak	121	140	-19	-13,57%
	Guztira	506.145	500.262	5.883	1,18%
Guztira	Lehen sektorea	17.618	18.456	-838	-4,54%
	Erauzketa-industriak	114	131	-17	-12,98%
	Manufaktura-industriak	144.172	148.812	-4.640	-3,12%
	Energia	146	149	-3	-2,01%
	Ura	6.259	6.061	198	3,27%
	Eraikuntza	34.049	35.560	-1.511	-4,25%
	Merkataritza	107.493	110.461	-2.968	-2,69%
	Garraioa	82.453	74.669	7.784	10,42%
	Ostalaritza	171.383	161.738	9.645	5,96%
	Informazioa eta komunikazioa	30.441	29.175	1.266	4,34%
	Finantzak eta aseguruak	4.338	4.497	-159	-3,54%
	Higiezin sektorea	1.389	1.352	37	2,74%
	Zientifikoak eta teknikoak	33.808	33.039	769	2,33%
	Administraziokoak	108.392	118.001	-9.609	-8,14%
	Administrazio publikoa	14.395	13.273	1.122	8,45%
	Hezkuntza	51.030	47.553	3.477	7,31%
	Osasuna eta gizarte-zerbitzuak	117.203	114.793	2.410	2,10%
	Arte- eta jolas-jarduerak	45.069	44.866	203	0,45%
	Beste zerbitzu batzuk	20.966	21.091	-125	-0,59%
	Etxeetako jarduerak	17.218	17.239	-21	-0,12%
	Lurraldezk kanpoko erakundeak	239	265	-26	-9,81%
	Guztira	1.008.175	1.001.181	6.994	0,70%
Gizonak	<>	31	19	12	63,16%
	Zuzendaritza	1.097	1.161	-64	-5,51%
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	38.829	36.223	2.606	7,19%
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	43.189	42.108	1.081	2,57%
	Administrazioko langileak	20.454	18.876	1.578	8,36%
	Zerbitzuetako kalifikatuak	101.145	99.881	1.264	1,27%
	Oinarrizko kalifikatuak	3.864	3.437	427	12,42%
Industriako kalifikatuak	69.280	69.475	-195	-0,28%	

Kontratuen erregistroa 2019an

		2019	2018	Aurreko urtearekiko	
				Saldoa	Bil. %
	Operadoreak	53.476	55.454	-1.978	-3,57%
	Kalifikatu gabeak	170.665	174.285	-3.620	-2,08%
	Guztira	502.030	500.919	1.111	0,22%
Emakumeak	<>	13	18	-5	-27,78%
	Zuzendaritza	713	644	69	10,71%
	Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak	64.844	61.044	3.800	6,23%
	Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak	38.962	38.116	846	2,22%
	Administrazioko langileak	38.419	37.866	553	1,46%
	Zerbitzuetako kalifikatuak	214.242	211.914	2.328	1,10%
	Oinarrizko kalifikatuak	388	307	81	26,38%
	Industriako kalifikatuak	5.816	6.358	-542	-8,52%
	Operadoreak	9.015	9.428	-413	-4,38%
	Kalifikatu gabeak	133.733	134.567	-834	-0,62%
	Guztira	506.145	500.262	5.883	1,18%
	Guztira	<>	44	37	7
Zuzendaritza		1.810	1.805	5	0,28%
Zientzia-arloko teknikari eta profesionalak		103.673	97.267	6.406	6,59%
Teknikariak eta laguntza emateko profesionalak		82.151	80.224	1.927	2,40%
Administrazioko langileak		58.873	56.742	2.131	3,76%
Zerbitzuetako kalifikatuak		315.387	311.795	3.592	1,15%
Oinarrizko kalifikatuak		4.252	3.744	508	13,57%
Industriako kalifikatuak		75.096	75.833	-737	-0,97%
Operadoreak		62.491	64.882	-2.391	-3,69%
Kalifikatu gabeak		304.398	308.852	-4.454	-1,44%
Guztira		1.008.175	1.001.181	6.994	0,70%
ABLE		Gizonak	142.099	135.774	6.325
	Emakumeak	66.969	62.385	4.584	7,35%
	Guztira	209.068	198.159	10.909	5,51%
Pertsona-kopurua	Gizonak	163.542	166.216	-2.674	-1,61%
	Emakumeak	147.028	147.331	-303	-0,21%
	Guztira	310.570	313.547	-2.977	-0,95%
	Derrigorrezko hezkuntzako ikasketak	137.488	139.188	-1.700	-1,22%
	Batxilergoa	66.194	64.850	1.344	2,07%
	LHko ikasketak	49.129	51.741	-2.612	-5,05%
	Unibertsitate-ikasketak	55.390	55.463	-73	-0,13%
	Atzerritarra	51.151	47.204	3.947	8,36%
	Bertakoa	259.419	266.343	-6.924	-2,60%
	<>	63	48	15	31,25%
	Aberrigabea	188	116	72	62,07%
	Europako Erkidegoa	6.053	5.903	150	2,54%
	Erkidegokoa ez den Europa	7.075	7.171	-96	-1,34%
	Txina	1.144	1.136	8	0,70%
	Japonia	36	27	9	33,33%
	Asiako beste herrialde bat	3.461	3.290	171	5,20%
	Saharaz hegoaldeko Afrika	5.499	5.252	247	4,70%
	Afrikako iparraldea	8.033	7.400	633	8,55%
	Ipar Amerika	180	179	1	0,56%
	Erdialdeko eta Hego Amerika	19.372	16.654	2.718	16,32%
	Ozeania	47	28	19	67,86%
	Atzerritarrak guztira	51.151	47.204	3.947	8,36%